

ADMINISTRAZIO-AKORDIOA,
Europako Batzordearen eta Espainiako
Erresumaren artekoa

(2006/C 73/06).

Batetik, Europako Batzordeak, eta, bestetik, Espainiako Erresumak,

Ikusita, Europar Batasuneko «Gai Orokorretako eta Kanpo Harremanetako» Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Kontuan hartuz:

- (1) Batasuna herritarrengana hurbiltzeko ahaleginen barruan, erraztu behar da, ahal den neurrian, herritarrak eta haien ordezkariak instituzioekin beren ama-hizkuntzan komunikatzea, elementu garrantzitsua baita Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.
- (2) Batasunean badira beste hizkuntza batzuk, Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitakoez aparte, estatu kide baten Konstituzioaren arabera estatutua aitortua dutenak lurralde osoan edo zati batean, edo legez hizkuntza nazional bezala erabil daitezkeenak.

ADOSTEN DUTE ADMINISTRAZIO-AKORDIO HAU sinatzea, Europako Batzordean erabili ahal izateko 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzak.

Lehenengo klausula

Espainiako zuzenbideak aurreikusitako baldintzetan eta 2005eko ekainaren 13ko Kontseiluaren Ondorioen arabera, Espainiako herritarrek edo egoitza soziala Espainian duen edo bertan bizi den edozein pertsona fisiko edo juridikok aukera izango dute Europako Batzordera idatzizko komunikazioak bidaltzeko Espainiako ordenamendu konstituzionalaren arabera Espainiako lurraldean ofizialak diren edozein hizkuntzatan.

1.1. Ez bada gaztelania erabiltzen, ahalmen hori prozedura honen arabera gauzatuko da:

- Herritarrak Espainiako Zuzenbideak izendatutako organismo eskudunari bidaliko dio idatzizko komunikazioa, Europako Batzordeari bidal diezaion gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera.
- Komunikazioaren jasotze-data izango da Europako Batzordeak organismo horren itzulpen ziurtatua jasotzen duen eguna, bereziki Europako Batzordeak herritarri erantzuteko epe bat duenean.
- Europako Batzordeak gaztelaniaz idatziko du bere erantzuna, eta lehen aipaturiko organismo eskudunari bidaliko dio.

— Organismo eskudun horrek lehenbailehen bidaliko dio interesdunari Europako Batzordeak emandako erantzuna, jatorrizko komunikazioaren hizkuntzara egindako itzulpen ziurtatuarekin batera.

— Batzordearen administrazio-zerbitzuek jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan erantzutea erabakitzen badute, hala egin dezakete, eta erantzuna zuzenean bidali interesdunari.

— Gaztelaniaz besteko hizkuntza batera itzultzean gerta daitezkeen atzerapenak edo akatsak, edo akats horiengatik egin daitezkeen interpretazio okerrak, ez dira izango Batzordearen erantzukizuna, eta hori espresuki jasoko da itzulpenen testuetan.

1.2. Salbu eta Batzordearen zerbitzuek itzulpena beren bitartekoekin egiteko gaitasuna edo borondatea duten kasuan, Batzordeak bidaltzaileari itzuliko dizkio idatzizko komunikazioak, baldin eta 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutu ofiziala duen gaztelaniaz besteko hizkuntza batean badaude eta ez badaramate gaztelaniazko itzulpen ziurtaturik.

Kasu horretan, Europako Batzordeak honako hau jakinaraziko dio interesdunari: Europako Batzordeari komunikazioak gaztelaniaz besteko hizkuntza batean bidaltzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko duen eskubidea baliatu nahi badu, Espainiako legeriak horretarako izendatua duen organismoari bidali behar dizkio komunikazio horiek.

1.3. Komunikazioa egin duen herritarrak epe bat badauka Europako Batzordeak emandako erantzuna bideratzeko, eta 1.1. puntuan xedatutakoa gorabehera, Europako Batzordeak zuzenean bidaliko dio erantzuna herritarri, gaztelaniaz, eta organo eskudunari ere bai. Erantzun horretan, Europako Batzordeak herritarri gogoraraziko dio erantzuna bideratzeko epea hura gaztelaniaz jasotzen duen egunetik aurrera hasiko dela zenbatzen. Batzordeak bere erantzunaren kopia bidaliko dio organismo eskudunari, herritarri erantzunaren itzulpena eman ahal izan diezaion jatorrizko komunikazioaren hizkuntzan, eta horretaz ohartaraziko du herritarra aipaturiko erantzunean. Batzordea ez da inola ere izango itzulpen horien erantzule, eta hori espresuki adieraziko da itzulpenen testuetan.

1.4. Batzordeak epe jakin baten barruan erantzun behar badu, epe hori hasiko da zenbatzen jatorrizko dokumentua gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera jasotzen den egunean. Epearen zenbaketa eten egingo da Batzordeak gaztelaniazko erantzun-idatzia bidaltzen duenean Espainiako Zuzenbideak izendatutako organismo eskudunera, edo erantzuna herritarri zuzenean bidaltzen dionean jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan.

1.5. Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentziasuna uneoro gordetzeko behar diren neurriak har daitezzen, bereziki Espainiako Zuzenbideak izendatutako organismo eskudunak egindako itzulpenari dagokionez.

Bigarren klausula

Espainiako Gobernuak bere gain hartuko ditu administrazio-akordio hau aplikatzen eratorritako zuzeneko eta zeharkako kostuak, Europako Batzordeari dagokionez.

Urtean behin, Europako Batzordeko zerbitzu eskudunek Espainiako agintariei eskatuko diete egindako gastuak itzul ditzatela, oroharreko prezioan kalkulaturik akordio honetan aurreikusitako prozedurari jarraikiz zerbitzu-eskudunek itzulitako orrialde-kopuruaren arabera.

Azken xedapena

Akordio hau aplikatzen hasiko da Espainiako Gobernuak Batzordeko Idazkaritza Nagusiari lehenengo klausulan aipatzen diren itzulpenak egiteko Espainiako Zuzenbideak organismo eskudun gisa izendatutako organismoak zein diren jakinarazten dionetik aurrera.

Bruselan, 2005eko abenduaren 21ean

Europako Erkidegoen Batzordea eta Espainiako Erresuma

Carlos BASTARRECHE
Enbaxadore
ordezkari iraunkorra

Catherine DAY
Idazkari nagusia